



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2023ko urtarilaren 9ko bilkura

Bi mila eta hogeita hirugarren urtean, urtarilaren bederatzian, zazpitan, herri honetako Herriko Kontseilua, erregularitasunez deitua izanik, legeak manatzen duen kopuruan bildu zen, Herriko etxeko gelan, Jean-Marc OÇAFRAIN Auzapezaren lehendakaritzapean

Hor zirenak : CASIRIAIN Elena, CHAMALBIDE Corinne, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, GOICOECHEA Iñaki, HEGUY Antton, IDIART Claudine, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

Barkatuak zirenak : AYÇAGUER Elorri

Bilkurako idazkari izendatua izan da : LEKUMBERRY Xantxo

Deialdiaren eguna : 2023ko urtarilaren 5a

Afitzatze eguna : 2023ko urtarilaren 5a

3. ERABAKIA: DEIPEKO ERREGIMEN BATEN EZARTZEA

(4.1 nomenklatura)

Auzapezak Herri Biltzarrari oroitarazi dio herriko gaitasun anitzeko langile teknikoak eskuhartze planetara deitua izan daitekeela bat-bateko edo ez usteko gertakari baten kariatara giza baliabideen indartzeko (aitzin-larrialdi edo larrialdi egoera).

Parekotasun printzipioari jarraikiz, herriko langileek frantses estatuko funtzio publikoa arautzen duten testuetan oinarritutako deipekoen lansari eta konpentsazioak ukan ditzake.

Auzapezak, Herri Biltzarrari proposatu dio, herriko zerbitzu teknikoetako langileentzat deipeko sistema baten ezartzea, honako baldintzetan:

Zer enplegurentzat? (<i>gradua, enplegua</i>)	Antolaketa moduak (eskura dituen baliabideak, ordutegiak, egutegia, deipeko langilean betebeharrak...)	Lansari eta konpentsazio baldintzak
Sail teknikoa		
Orotariko langile teknikaria (lurralde teknikari laguntzaileen, lurralde talde arduradunen,	Beharrak: egunaz, gauaz, larunbatak, igandeak Deipekoa denean, langile edonoiz deitua izan daiteke.	Segurtasun deipekoaren ordain saria (informazio gisa: deipekoa denean, langilean ordain saria badu, deitua izan ala ez; ordain saria deipekoa izan den denboraren arabera da) <i>Esku hartu behar badu:</i>

lurralde teknikarien enplegu esparrua)	Eskura ezartzen zaizkion baliabideak: zerbitzu-ibilgailua, sakelako telefonoa	Lan gehigarrientzako ordain sariak (ITHS) edo Konpentsazio atsedenaldia
--	---	---

Auzapezak Herri Biltzarrari proposatu dio ahalmena eman diezaiola, zerbitzuaren beharren arabera denbora konpentsazioa eta ordain sariaren artean hautatzeko.

Bestalde, deipeko ordain sariak herrian zuzenbide publikoko kontratupekoak direnek ere ukan ditzakete, maila bereko funtzionarioen baldintza beretan.

Herri Biltzarrak, Auzapezaren azalpenak entzun eta gero, 2022ko abenduaren 1eko Herri arteko Batzorde Teknikoaren aldeko iritzia ukan, eta eztabaidaturik,

- ONARTU DU - Auzapezak proposatu duen deipeko erregimena

- AINTZAT HARTU DITU

- 2002ko otsailaren 7ko frantses estatuaren 2002-147 dekretua, zeinak barne ministerioko administrazio zuzendaritza orokorrak kudeatzen dituen langileen deipeko eta eskuhartze ordain sari eta konpentsazioak,

- 2005eko maiatzaren 19ko frantses estatuaren 2005-542 dekretua, lurralde funtzio publikoan deipekoak eta permanentziak ordaintzeko edo konpentsatzeko baldintzei buruzkoa,

- 2015eko apirilaren 14ko frantses estatuaren 2015-415 dekretua, garapen jasagarriaren eta etxebizitza ministerioetan deipekoen eta esku hartzeen ordaintzeko edo konpentsatzeko baldintzei buruzkoa,

- Auzapezak proposatu ordainsari eta konpentsazioen baldintzak.

- BAIMENA EMAN DIO - Auzapezari ordain sariaren eta konpentsazio atsedenaldiaren artean hautatzeko, zerbitzuaren beharren arabera.

- ZEHAZTU DU, - urteko aurrekontuan kreditu nahikoa badela horretarako

- honako erabakia 2023ko urtarrilaren 1ean sartuko dela indarrean.

Kide kopurua : 15

Hor zirenen kopurua : 14

Balizko boz kopurua : 14

ALDE : 14

KONTRA : 0

ABSTENTZIO : 0

Hala erabakia, gaineke egun, hilabete eta urtean. Bertaratu diren kideek sinatu dute erregistroan. Araberatasunez ziurtatu erabakia.

ORTZAIZEn, 2023ko urtarrilaren 9an
Auzapeza,
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,
2023/01/11n publikatu edo notifikatu ondoan,
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2023/01/11n.